EBAZPENA, Itsasertzaren Garapenaren, Portuen eta Itsas Gaien zuzendariarena, Erandioko Udalari itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzeko administrazio-emakida ematen diona, itsasadarraren gaineko zubia legeztatzeko eta Erandioko udalerrian Asuako itsasadarraren bokaletik igarotzen den BI-711 errepidearen zatian oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbidea zabaltzeko (CNC02.23.48.0003).

Lehena.- 2023ko urtarrilaren 2an, Erandioko Udalak itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzeko administrazio-emakida eskatu zion Euskal Herriko Itsasertz Mugarteari, Erandioko udalerrian (Bizkaia) BI-711 errepidea igarotzen den zubiari, (Asuako itsasadarraren gainean dagoena) eragiten dioten "Itsasadarraren oinezkoentzako eta bizikletentzako ardatzaren proiektua/Lutxana-Altzaga tartea" izenekoan definitutako obren okupazioari dagokionez.

Bigarrena.- Kostaldearen eta Itsasoaren zuzendari nagusiaren 2024ko ekainaren 6ko Ebazpenaren bidez, Erandioko Udalari emakida hori emateko baldintzak ezarri ziren. Ebazpen hori 2024ko ekainaren 7an jakinarazi zitzaion eskatzaileari.

RESOLUCIÓN, del director de Desarrollo Litoral, Puertos y Asuntos Marítimos, por la que se otorga al Ayuntamiento de Erandio concesión administrativa de ocupación de dominio público marítimo-terrestre con destino a la legalización del puente sobre la ría y su ampliación para itinerario peatonal y ciclable en el tramo de carretera BI-711 que sobrevuela la desembocadura de la Ría de Asua, en el término municipal de Erandio (CNC02.23.48.0003).

Primero.- Con fecha 2 de enero de 2023, tuvo entrada en la Demarcación de Costas del País Vasco solicitud del Ayuntamiento de Erandio de concesión administrativa para ocupación del dominio público marítimo-terrestre, en relación con la ocupación por las obras definidas en el "Proyecto de eje peatonal y ciclable de la Ría / Tramo Lutxana - Altzaga" que afectan al puente por el que discurre la carretera BI-711 y que sobrevuela la ría del Asua, en el término municipal de Erandio (Bizkaia).

Segundo.- Por Resolución de 6 de junio de 2024, de la directora general de la Costa y el Mar, se establecieron las condiciones en las que podría otorgarse al Ayuntamiento de Erandio la mencionada concesión. Dicha resolución se

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T6W02-8REJ
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: KOLDOBIKA GOITIA MARKUERKIAGA | 2025/05/05 14:43:07

2024ko irailaren 2ko idazkiaren bidez, Erandioko Udalak berariaz onartu ditu 2024ko ekainaren 6ko Ebazpenean ezarritako baldintzak, eta, beraz, bidezkoa da emakida eskaini eta onartutako baldintza berberetan ematea.

notificó al solicitante con fecha 7 de junio de 2024.
Mediante escrito de 2 de septiembre de 2024 el Ayuntamiento de Erandio ha aceptado expresamente las condiciones establecidas en la Resolución de 6 de junio de 2024, por lo que procede otorgar la concesión en las mismas condiciones ofrecidas y aceptadas.

Hirugarrena.- Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 64. artikuluak xedatzen duenez, Estatuaren itsas-lehorreko jabari publikoko ondasunak desmuntagarriak ez diren obra edo instalazioekin okupatzeko, aldez aurretik emakida beharko da. Lege beraren 66.2 artikuluak gehitzen du epea dagokion tituluan zehazten dena izango dela, eta inola ere ezingo dela hirurogeita hamabost urtetik gorakoa izan.

Tercero.- El artículo 64 de la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas dispone que toda ocupación de los bienes de dominio público marítimo-terrestre estatal con obras o instalaciones no desmontables estará sujeta a previa concesión. El artículo 66.2 de la misma ley añade que el plazo será el que se determine en el título correspondiente, que en ningún caso podrá exceder de setenta y cinco años

Laugarrena.- Kostaldeei buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren 152.6 artikuluan ezarritakoari jarraituz, txostenak eskatu zaizkie Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzari, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari eta Uraren Euskal Agentziari (URA). Egindako txostenetako batek ere ez dio eragozpenik jartzen Udalak eskatutakoari.
Gainera, geroago, Erandioko Udalak beste txosten bat eskatu dio Uraren Euskal Agentziari, BI-711 errepideko zubiak Asua ibaiaren ahalmen hidraulikoan izango duen eragina

Cuarto.- Conforme a lo establecido en el artículo 152.6 del Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de Costas, se han solicitado informes a la Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco, a la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia y a Agencia Vasca del Agua (URA). Ninguno de los informes emitidos plantea objeciones a lo solicitado por el Ayuntamiento.
Además, con posterioridad, el Ayuntamiento de Erandio ha solicitado nuevo informe a la Agencia Vasca del Agua con el fin de analizar la incidencia del puente de la carretera BI-711

aztertzeko, klima-aldaketaren aurreikus daitezkeen ondorioak kontuan hartuta.

Bosgarrena.- Emakida honi Kostaldeen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren 163. artikuluko azkentze-kausak eta 165. eta 166. artikuluetan ezarritako iraungitze-kausak aplikatuko zaizkio.

Seigarrena.- Lehendakariaren abenduaren 23ko 490/2024 Dekretuaren bidez onartutako abenduaren 23ko 1310/2024 Errege Dekretuaren (itsasertzaren antolamenduaren eta kudeaketaren arloan Estatuko Administrazioak dituen eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa) eranskinaren B) 1 idatz-zatiak ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkiola Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 64. artikuluan aipatzen diren herri-jabariko emakiden kudeaketa. Horren barruan sartzen da, betiere, emakida ematea, berritzea, luzatzea, aldatzea eta azkentzea.

Zazpigarrena.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, Itsasertzaren Garapeneko, Portuen eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak Estatuko Administrazio Orokorretik datozen egintzak eta izapideak gordetzen ditu espediente honen esparruan.

sobre la capacidad hidráulica del río Asua teniendo en cuenta los efectos previsibles del cambio climático.

Quinto.- A la presente concesión le serán de aplicación las causas de extinción del artículo 163 y las causas de caducidad establecidas en los artículos 165 y 166 del Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de Costas.

Sexto.- El apartado B) 3. del anexo al Real Decreto 1310/2024, de 23 de diciembre, de traspaso de funciones y servicios de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de ordenación y gestión del litoral, aprobado por el Decreto 490/2024, de 23 de diciembre, del Lehendakari, establece que se traspasan a la Comunidad Autónoma del País Vasco La gestión de las concesiones demaniales a las que se refiere el artículo 64 de la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas, que incluye, en todo caso, su otorgamiento, renovación, prórroga, modificación y extinción.

Séptimo.- De conformidad con lo establecido en el artículo 3 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, la Dirección de Desarrollo Litoral, Puertos y Asuntos Marítimos conserva los actos y trámites provenientes de la Administración General del Estado en el marco de este expediente.

Aurrekoa azalduta, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2025eko martxoaren 28ko Aginduaren bidez Zuzendaritza honi emandako eskumenez baliatuz (agindu horren bidez, Itsasertzaren Garapenaren, Portuen eta Itsas gaien zuzendariari eskuordetzen zaizkio itsasertzaren antolamenduaren eta kudeaketaren arloko baimenak eta emakidak kudeatzeko eta emateko eskumenak), honako hau

Expuesto lo que antecede, en virtud de las facultades atribuidas a esta Dirección por Orden de 28 de marzo de 2025, de la Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, por la que se delegan competencias en el Director de Desarrollo Litoral, Puertos y Asuntos Marítimos, relativas a la gestión y otorgamiento de autorizaciones y concesiones en materia de ordenación y gestión del litoral,

EBAZTEN DUT

RESUELVO

Lehenengoa.- Erandioko Udalari itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzeko administrazio-emakida ematea, itsasadarraren gaineko zubia legeztatzeko eta Asuako itsasadarraren bokaletik igarotzen den BI-711 errepidearen zatian oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbidea zabaltzeko.

Primero.- Otorgar al Ayuntamiento de Erandio concesión administrativa de ocupación de dominio público marítimo-terrestre, con destino a la legalización del puente sobre la ría y su ampliación para itinerario peatonal y ciclable en el tramo de carretera BI-711 que sobrevuela la desembocadura de la ría de Asua.

Bigarrena.- Kostaldearen eta Itsasoaren zuzendari nagusiaren 2024ko ekainaren 6ko Ebazpenean ezarritako baldintzen arabera arautuko da emakida.

Segundo.- La concesión se regirá por las condiciones establecidas en la Resolución de 6 de junio de 2024, de la directora general de la Costa y el Mar.

Hirugarrena.- Ebazpen honek bere datatik aurrera izango ditu ondorioak, hau da, ebazpenaren kokatzailean jasota dagoena.

Tercero.- La presente resolución surtirá efectos desde el día de su fecha, que es la que consta en el localizador de la misma

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta ondorioak izan ditzan.

Cuarto.- Notificar la presente resolución a la interesada, para su conocimiento y para que surta efectos.

Bosgarrena.- Kostaldeei buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren 152.14 artikuluan ezarritakoaren arabera, ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango da, bi hilabeteko epean.

Ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, berariaz ebatzi arte edo jarritako berraztertzeko errekurtsoaren presuntziozko ezespena gertatu arte.

Quinto.- Conforme a lo establecido en el artículo 152.14 del Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de Costas, la presente resolución pone fin a la vía administrativa y podrá ser recurrida potestativamente en reposición ante el mismo órgano que la ha dictado en el plazo de un mes, o ser impugnada directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo en el plazo de dos meses.

No se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente o se haya producido la desestimación presunta del recurso de reposición interpuesto.

Elektronikoki sinatua,

Firmado electrónicamente,

Koldo Goitia Markuerkiaga

ITSASERTZAREN GARAPENAREN, PORTUEN ETA ITSAS GAIEN ZUZENDARIA

DIRECTOR DE DESARROLLO LITORAL, PUERTOS Y ASUNTOS MARÍTIMOS

ERANSKINA, Itsasertzaren Garapenaren, Portuen eta Itsas Gaien zuzendariaren ebazpenarena, Erandioko Udalari itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzeko administrazio-emakida ematen diona, Erandioko udalerrian Asua itsasadarraren bokaletik igarotzen den BI-711 errepidearen zatian itsasadarraren gaineko zubia legeztatzeko eta oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbidea zabaltzeko (CNC02.23.48.0003).

EZAUGARRIAK

Lehena.- Xedea: Itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzea, itsasadarraren gaineko zubia legeztatzeko eta Asuako itsasadarraren bokaletik igarotzen den BI-711 errepidearen zatian oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbidea zabaltzeko.

Bigarrena.- Lekua: Erandioko udalerria (Bizkaia).

Hirugarrena.- Okupatu beharreko azalera: 621 m2 inguruko okupazio-azalera itsas-lehorreko jabari publikoan.

Laugarrena.- Emakidaren epea: hamabost (15) urte, eta gehienez ere hogeita hamar (30) urtera arte luza daiteke, baldin eta dirulaguntza ematea eragin zuten interes

ANEXO a la Resolución, del director de Desarrollo Litoral, Puertos y Asuntos Marítimos, por la que se otorga al Ayuntamiento de Erandio concesión administrativa de ocupación de dominio público marítimo-terrestre con destino a la legalización del puente sobre la ría y su ampliación para itinerario peatonal y ciclable en el tramo de carretera BI-711 que sobrevuela la desembocadura de la Ría de Asua, en el término municipal de Erandio (CNC02.23.48.0003).

CARACTERÍSTICAS

Primera.- Objeto: Ocupación de dominio público marítimo-terrestre con destino legalización de puente sobre la ría y su ampliación para itinerario peatonal y ciclable en el tramo de carretera BI-711 que sobrevuela la desembocadura de la Ría de Asua.

Segunda.- Lugar: Término municipal de Erandio (Bizkaia).

Tercera. - Superficie a ocupar:

Unos 621 m^2 de superficie de ocupación en dominio público marítimo-terrestre.

Cuarta.- Plazo de la concesión: quince (15) años prorrogables hasta un máximo de treinta (30) años, si persisten las

publikoko baldintzek bere horretan badiraute.

Bosgarrena.- Ondorioak: emakidadunari emateko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunean hasiko da epea (Kostaldearen eta Itsasoaren zuzendari nagusiaren 2024ko ekainaren 6ko Ebazpenean jasotako Baldintza Orokorren Pleguaren 2. baldintza).

Seigarrena.- Ustiapen-bermea.- Emakidaduna salbuetsita dago uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 88. artikuluan aipatzen den fidantza aurkeztetik; izan ere, Toki Ogasunak arautzen dituen Legea onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 173.2 artikuluan aurreikusitakoa aplikatu behar da. Artikulu horrek toki-erakundeak fidantza eskatzetik salbuesten ditu, erabilera edo zerbitzu publikorik ez duten ondare-ondasunak direnean izan ezik.

Zazpigarrena.- Kanona: lagapen-hartzailea salbuetsita dago kanona ordaintzetik, Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 84. artikulua aplikatuz. Lege horren bidez, autonomia-erkidegoak, toki-erakundeak eta haien mendeko zuzenbide publikoko erakundeak salbuetsita daude okupazio-kanona ordaintzetik beren eskumenak gauzatzeko ematen zaizkien emakidetan, betiere

condiciones de interés público que motivaron el otorgamiento.

Quinta.- Efectos: El plazo comenzará a contar el día siguiente a la notificación al concesionario de la Resolución de otorgamiento (condición 2ª del Pliego de Condiciones Generales contenido en la Resolución de 6 de junio de 2024, de la directora general de la Costa y el Mar).

Sexta.- Fianza de explotación: El concesionario está exento de la presentación de fianza, a la que se refiere el artículo 88 de la Ley 22/1988, de 28 de julio, pues es de aplicación lo previsto en el artículo 173.2 del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba la Ley Reguladora de Haciendas Locales, que exime de la exigencia de fianza a las entidades locales, excepto cuando se trate de bienes patrimoniales no afectados a un uso o servicio público.

Séptima.- Canon: El cocesionario está exento del pago de canon en aplicación del artículo 84 de la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas, por el que las Comunidades Autónomas, las entidades locales y las entidades de derecho público dependientes de ellas, están exentas del pago del canon de ocupación en las concesiones que se les otorguen para el ejercicio de sus competencias, siempre

emakida horiek irabazizko ustiapenaren xede ez badira.

que las mismas no sean objeto de explotación lucrativa.